## Euskalduna Jauregia, A.B.
## *Palacio Euskalduna, S.A.*

Inauguratu zenetik izandako ekitaldi guztietan bezala, 2015eko ekitaldia ere cash flow positiboarekin itxi du Euskalduna Jauregiak, eta, ondorioz, aurten ere ez da egon ustiapeneko dirulaguntzak erabiltzeko beharrizanik.

Euskalduna Jauregia cierra el ejercicio 2015, al igual que todos los ejercicios habidos desde su inauguración, con un cash flow positivo, lo que ha hecho innecesarias, un año más, la utilización de subvenciones de explotación.

Urteko egunen okupazioa %94koa izan da 2015ean. Okupazio-indize horri bestelako datuak gehituta, hala nola, kongresu eta bilerak (440 guztira), emanaldiak (355) eta ikusle-kopurua (567.345), 2015. urterako finkaturiko helburuak erdiestea lortu da, Espainiar Estatuko Kongresu Jauregien rankinean postu pribilegiatua mantenduz.

En el año 2015 se ha alcanzado una ocupación del 94% de los días del año. Este índice de ocupación, unido al número de congresos y reuniones 440, las 355 representaciones los 567.345 asistentes nos ha posibilitado alcanzar los objetivos marcados para el año 2015 y nos ha permitido mantener nuestra privilegiada posición en el ranking de Palacios de Congresos del Estado español.

Euskaldunaren instalazioetan, guztira, 795 ekitaldi eta emanaldi egin ziren 2015ean.

En las instalaciones de Euskaduna se realizaron a lo largo de 2015 un total de 795 eventos y representaciones.

Ekitaldian zehar, eta kalitatearen alde egindako apustuarekin jarraituz, Euskaldunak ziurtagiri bat baino gehiago berriztatu ditu: Kalitatearen Kudeaketaren ISO 9001:2008; Ingurumen Kalitatearen ISO 14001/2004 ziurtagiria; U.S. Green Building Council delakoaren araberako LEED Ingurumen Ziurtagiria; Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Kudeaketaren OHSAS 18001/2007 ziurtagiria; DALCO UNE 170001-2 arauen araberako Irisgarritasun Unibertsalaren Kudeaketari buruzkoa; eta Kongresu Jauregien Kalitate Turistikoari buruzko UNE 187004/2008 ziurtagiria.

Durante el ejercicio, y como continuación de la apuesta por la calidad, Euskalduna ha renovado las certificaciones de Gestión de Calidad ISO 9001:2008, Gestión Medioambiental ISO 14001/2004, así como el Certificado Medioambiental LEED según el U.S. Green Building Council, Gestión de Seguridad y Salud en el trabajo OHSAS 18001/2007, Gestión de la Accebilidad Universal segun normas DALCO UNE 170001-2 y de Calidad Turística de Palacios de Congresos UNE 187004/2008.

Hori guztia dela eta, Euskalduna Jauregia punta-puntako erreferentzia-gunea da biltzar eta batzar jarduera askorentzat, bai eta kultur, gizarte eta aisialdiko hainbat ekintzatarako ere.

Por todo ello, el Palacio Euskalduna sigue siendo un punto de referencia de primer orden para un gran número de actividades congresuales y de reunión así como para múltiples manifestaciones culturales, sociales y de ocio.

JARDUERA

ACTIVIDAD

Ekitaldi honetan, 440 bilera nahiz biltzar-ekitaldi egin dira, eta 355 musika-emanaldi edota ikuskizun.

En este ejercicio se ha alcanzado la cifra de 440 reuniones y eventos congresuales y 355 representaciones musicales y espectáculos.

## Biltzarrak eta bilerak

Biltzar eta bilera kopurua honela dago banatuta:

## Actividad Congresual y de Reuniones

El número de congresos y reuniones se distribuye en:

| | |
|---|---|
| ❑ Biltzarrak eta antzekoak / Congresos y Asimilados | 31 |
| ❑ Batzar eta Asanblada Orokorrak / Juntas y Asambleas Generales | 18 |
| ❑ Enpresako Ospakizunak eta Konbentzioak / Convenciones y Actos de Empresa | 19 |
| ❑ Mintegiak eta Jardunaldiak / Seminarios y Jornadas | 271 |
| ❑ Gizarte Ekitaldiak / Actos Sociales | 23 |
| ❑ Ikuskizuna duten Gizarte Ekintzak / Actos Sociales con Espectáculo | 6 |
| ❑ Erakusketak / Exposiciones | 18 |
| ❑ Bestelakoak (Erakusketak, irrati eta telebista saioak, eta abar.) / Varios (Exposiciones, programas de radio y TV, etc..) | 54 |

Guztira, 440 bilera eta biltzar egin dira. Nabarmentzekoa da, biltzar horietatik, zortzik 1.000 parte-hartzailetik gora izan dituztela, urtebetean biltzar handiek orain arte izandako marka berdinduz.

Urria eta ekaina izan ziren biltzar gehien izan zituzten hilabeteak, zortzi eta lau, hurrenez hurren. Gainera, urteko jarduera gehienak azaroan pilatu ziren, 63 bilera-ekitaldirekin. Maiatza, urria eta abendua ere aipatzeko modukoak izan ziren.

Jauregia inauguratu zenetik, 2015ekoa izan da biltzarren okupazio-mailarik handiena izan duen ekitaldia. Esan bezala, 1.000 lagunetik gora bildu dituzten 8 biltzar handi egin dira. Horien artean, aipamen berezia merezi du Bihotzeko Gaixotasunen inguruko SEC 2015 Biltzarrak, 3.100 parte-hartzaile izan baitzituen; halaber, Euskadin 2015ean egin zen biltzarrik handiena izan zen, eta eragin handia izan zuen EAEko KPIn. Esanguratsuak izan ziren, era berean, Espainiako Pediatria Sozietatearen 63. Biltzarra, Espainiako Ginekologia eta Obstetrizia Sozietatearen XXIII. Biltzarra, The International Congress on Thinking ICOT 2015, Europython 2015, El Sol 2015 Publizitate Komunikazioaren Jaialdi Iberoamerikarra, Ahoko Kirurgiaren Espainiako

El número de reuniones y congresos ha sumado un total de 440 eventos. Destaca el hecho de que ocho de los congresos han congregado a más de 1.000 asistentes, igualando el mayor número conseguido de grandes congresos en un año.

Octubre, con ocho, y junio, con cuatro, fueron los meses que registraron mayor número de congresos. Además, noviembre aglutinó la mayor actividad del año, con 63 eventos de reunión. También destacaron en este aspecto mayo, octubre y diciembre.

Desde la inauguración del Palacio, 2015 ha sido el ejercicio en el que se ha producido un mayor grado de ocupación congresual. Como se ha indicado se han celebrado 8 grandes congresos de más de 1.000 asistentes. Destacó, de manera singular, el Congreso de las Enfermedades Cardiovasculares SEC 2015, con 3.100 asistentes que fue el acontecimiento congresual más grande de cuantos se celebraron en Euskadi a lo largo de 2015, con un fuerte impacto económico en el PIB vasco. También resultaron especialmente significativos el 63º Congreso de la Sociedad Española de Pediatría, el XXIII Congreso de la Sociedad Española de Ginecología y Obstetricia, The International Congress on Thinking ICOT 2015, Europython 2015, el Festival Iberoamericano de la

Sozietatearen XII. Biltzarra eta XII European Meeting on Glial Cells in Health and Disease edota Familia Enpresen Estatuko XVIII. Biltzarra, besteak beste.

Batzarrak eta Asanbladak martxoa eta ekaina bitartean egin ziren. Besteak beste, BBVAren eta Iberdrolaren Akziodunen Batzar Nagusiak, Eroskiren Laneko Bazkideen Prestaketa Batzarra eta Athletic Club taldearen Ohiko Batzar Nagusia egin ziren Euskalduna Jauregian.

Horrez gain, beste ekimen hauek ere hartu zituen: Laneko Aire-plataforma Alokatzaileen Estatuko Elkartearen (ANAPAT) 21. Urteko Konbentzioa, Coca Colaren 8 OZ ontzi berriaren aurkezpena, Bizkaia Talent elkartearen Basque Talent sarearen aurkezpena, Paraguai-Bilbao I. Foro Ekonomikoa, CEBEK 2015 Enpresarien Topaketa, Esklerosi Anizkoitzaren Munduko Eguneko Jardunaldia, “Lo que de verdad importa”-ren VI. Edizioa, Fun Serious Festival Fan Zone, eta unibertsitateko diplomak banatzeko zenbait ekitaldi.

Era berean, alderdi politikoek eta erakunde sindikalek hainbat bilera eta ekitaldi egin dituzte Euskalduna Jauregian.

Azkenik, ikusleengan interes handia sorrarazi duten erakusketak ere egin dira, esaterako: Hogarútil Azoka, Antzinako Gauzen eta Bildumazaleen Almoneda Nazioarteko Azoka, Securimax Aretoa, Frankinorte 2015, FIG 2015 Grabatuen Nazioarteko Jaialdia edota “Lights, un mundo iluminado by DreamWorks” erakusketa.

## Jarduera musikal eta artistikoa.

Bestalde, musika eta ikuskizunen jarduerari dagokionez, 2015ean 355 emanaldi izan dira. 166 Auditoriumean, 93 Antzokia Aretoan, 20 Barria Aretoan, eta 76 Jauregiko beste areto batzuetan.

Comunicación Publicitaria El Sol 2015, el XII Congreso de la Sociedad Española de Cirugía Bucal y el XII European Meeting on Glial Cells in Health and Disease o el XVIII Congreso Nacional de la Empresa Familiar, entre otros.

Las Juntas y Asambleas se concentraron entre los meses de marzo y junio. El Palacio Euskalduna acogió, entre otras, las Juntas Generales de Accionistas del BBVA y de Iberdrola, la Junta Preparatoria de Socios de Trabajo de Eroski y la Asamblea Ordinaria del Athletic Club.

Asimismo fue escenario, entre otros, de la 21 Convención Anual de la Asociación Nacional de Alquiladores de Plataformas Aéreas de Trabajo (ANAPAT), la presentación del nuevo envase 8 OZ de Coca Cola, la presentación de la red de Basque Talent de Bizkaia Talent, el I Foro Económico Paraguay-Bilbao, el Encuentro Empresarial CEBEk 2015, la Jornada del Día Mundial de la Esclerosis Múltiple, la VI Edición de “Lo que de verdad importa”, Fun Serious Festival Fan Zone y diferentes actos de entrega de diplomas universitarios.

También se han desarrollado en el Palacio Euskalduna numerosas reuniones y actos, de diferentes partidos políticos y organizaciones sindicales.

Además se celebraron diversas exposiciones que despertaron gran interés público como La Feria Hogarútil, la Feria Internacional Almoneda de Antigüedades y Coleccionismo, el Salón Securimax, Frankinorte 2015, el Festival Internacional de Grabado FIG 2015 o al exposición “Lights, un mundo iluminado by DreamWorks”.

## Actividad Musical y Artística.

Por su parte, la actividad musical y de espectáculos ascendió en 2015 a un total de 355 representaciones. De ellas, 166 tuvieron lugar en el Auditórium, 93 en la Sala Teatro, 20 en la Sala Barria y 76 en otras Salas del Palacio.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

Asko eta asko dira 2015ean Euskalduna Jauregitik igaro diren musikari, abeslari eta antzezle bikainak, esaterako: Ainhoa Arteta, Boris Belkin, Carolina Kurkowski, Gabriela Montero, Teo Gheorghiu, Adolfo Gutiérrez, Joaquín Achúcarro, Stanislav Kristenko, Measha Brueggerghosman, Kiril Karabits, Isaac Karabtchevsky, Lan Shul, Erik Nielsen, Javier Camarena, El Barrio, Joan Báez, Spandau Ballet, Pasión Vega, Juan Manuel Serrat, Franco de Vita, Víctor Manuel eta Ana Belén, Van Morrison, Estrella Morente, Rafael Álvarez “El Brujo”, Carlos Latre, Amparo Larrañaga, Antonio Molero, Joaquín Reyes, Damián Cortés, Milagros Poblador, Cristian Balasescu, Silvia Vázquez, María Rodríguez, Shujaat Khan, Damián Muñoz, Jordi Cortés edota Sharon Fridman.

Bereziki arrakastatsuak izan ziren: Jackson Berkey musikagile eta piano-jotzaile estatubatuarraren “Cantate 2000” obraren Europa mailako estreinaldi absolutua, “Gran Antología de la Ópera”, “Cantajuego”, Kubako Ballet Nazionala, John Lennoni egindako omenaldia “The Quarrymen” taldearekin, OLBEren Opera Denboraldiko ekitaldiak edota BOSen eta EOSen kontzertuak.

Euskalduna Jauregiko Aste Nagusia Zikloak 43.804 ikusle izan zituen guztira Jauregiko lau aretotan (Auditoriuma, Antzokia Aretoa, A-3 Aretoa eta Barria Aretoa), eta 1.306.592 euro bildu ziren guztira.

Ziklo horren baitan, arrakasta handia lortu zuen “The Hole 2” ikuskizun bitxi eta harrigarriak, 21.152 ikuslerekin. 2015eko Aste Nagusian ikusle-kopuru gehien izan zuen ikuskizuna izan zen. Aipatzekoak dira, era berean, “El nombre” antzezlana, 7.308 ikuslerekin, eta “La verbena de La Paloma” eta “La Revoltosa” zarzuelako egitarau bikoitza, 4.197 ikuslerekin.

Beste alde batetik, 34.276 ikusle joan ziren Gabonetako Zikloko egitarauaren barruan eskainitako ikuskizunetara eta “Lights, un mundo iluminado by DreamWorks” izeneko erakusketara.

A lo largo de 2015 han actuado en el Palacio Euskalduna numerosas figuras de la música, el canto o las artes escénicas entre las que cabe citar, por ejemplo, a Ainhoa Arteta, Boris Belkin, Carolina Kurkowski, Gabriela Montero, Teo Gheorghiu, Adolfo Gutiérrez, Joaquín Achúcarro, Stanislav Kristenko, Measha Brueggerghosman, Kiril Karabits, Isaac Karabtchevsky, Lan Shul, Erik Nielsen, Javier Camarena, El Barrio, Joan Báez, Spandau Ballet, Pasión Vega, Juan Manuel Serrat, Franco de Vita, Víctor Manuel y Ana Belén, Van Morrison, Estrella Morente, Rafael Álvarez “El Brujo”, Carlos Latre, Amparo Larrañaga, Antonio Molero, Joaquín Reyes, Damián Cortés, Milagros Poblador, Cristian Balasescu, Silvia Vázquez, María Rodríguez, Shujaat Khan, Damián Muñoz, Jordi Cortés o Sharon Fridman.

Cosecharon importantes éxitos el estreno absoluto en Europa de “Cantate 2000”, obra del compositor y pianista norteamericano Jackson Berkey; la “Gran Antología de la Ópera”, “Cantajuego”, el Ballet Nacional de Cuba, el Homenaje a John Lennon con “The Quarrymen” los títulos de la Temporada de Ópera de la ABAO o diferentes conciertos de la BOS y la OSE.

El Ciclo Aste Nagusia del Euskalduna congregó en cuatro salas del Palacio (Auditórium, Sala Teatro, Sala A-3 y Sala Barria) un total de 43.804 espectadores, con una recaudación acumulada de 1.306.592 euros.

Logró un gran éxito el insólito y sorprendente “The Hole 2” que con 21.152 espectadores, fue el espectáculo más visto de Aste Nagusia 2015. También destacaron la obra de teatro “El nombre”, con 7.308 espectadores y el programa doble de zarzuela con “La verbena de La Paloma” y “La Revoltosa”, con 4.197.

Por otra parte, 34.276 espectadores, que dejaron en taquilla 735.085 euros, asistieron a los diferentes espectáculos y a la exposición “Lights, un mundo iluminado by DreamWorks”” ofrecidos durante la programación del Ciclo Navideño.

**Euskalduna Jauregia, A.B.**
***Palacio Euskalduna, S.A.***

Sarreren salmentari ikusle-kopurua (307.411) eta emanaldi-kopurua gehituz gero, espainiar Auditorium Publikoen artean posizio bikainean geratzen da Euskalduna Jauregia.

La venta total de entradas, unida a la cifra de espectadores (307.411) y al número de representaciones llevadas a cabo nos han llevado a una destacada posición entre los Auditorios Públicos españoles.

## ɔazio datuak

Jarduera hau guztia okupazio-datuetara ekarrita, honela laburbil dezakegu:

- Okupazio garbiko egunak: 343.
- Urteko okupazio-portzentajea (365 egun aintzat hartuta): %94

## Datos de ocupación

Esta actividad traducida a datos de ocupación, arroja los siguientes datos:

- Días de ocupación neta 343.
- Porcentaje de ocupación anual (sobre 365 días): 94 %

## Ikusle kopuruaren datuak

2015ean 567.345 ikusle inguru izan direla uste da, kopururik handiena jauregia inauguratu zenetik.

## Datos de asistencia

El número de asistentes estimado en el año 2015 es de 567.345 el más alto desde la inauguración.

## Datu ekonomikoak.

Sozietateak 2015eko ekitaldian izan dituen diru-sarrerak, guztira, 7.796.816,31 euroan zenbatu dira, honela banakatuta:

## Datos económicos.

En el ejercicio 2015 los ingresos totales de la Sociedad se han cifrado en 7.796.816,31 Euros, on el siguiente desglose:

| | Eurotan / Euros |
|---|---|
| ❑ Ustiapenagatiko diru-sarrerak / Ingresos de Explotación | 7.077.351,12 |
| ❑ Finantza diru-sarrerak / Ingresos financieros | 161.367,40 |
| ❑ Kapital diru-laguntzak, emaitzetara aldatuta / Subvenciones de Capital traspasadas a resultados | 558.097,79 |

Gastuen kapituluan, bestalde, 8.779.706,22 euroko zenbatekoa jaso da, modu honetara banakatuta:

El capítulo de gastos arroja un importe de 8.779.706,22 Euros, con el siguiente desglose:

| Kontzeptua / Concepto | Eurotan / Euros |
|---|---|
| ❑ Langileriaren gastuak / Gastos de personal | 1.459.171,14 |
| ❑ Amortizaziorako zuzkidurak / Dotación a la amortización | 2.130.164,08 |
| ❑ Bestelako ustiapen gastuak /Otros gastos de explotación | 5.145.179,79 |
| ❑ Finantza gastuak /Gastos financieros | 45.191,21 |

Partida horiek kontuan hartuta, ekitaldiko cash flowa positiboa izan da, 601.293,19 eurokoa, alegia.

Estas partidas han dado lugar a un cash-flow positivo en el ejercicio de 601.293,19 Euros.

Ekitaldiko emaitza 982.889,91 euroko galera izan da.

El resultado del ejercicio es de 982.889,91 Euros de pérdidas.

2015ean kapitalizatutako kostuen bolumena honakoa izan da:

El volumen de costes capitalizados en 2015 ha sido el siguiente:

| Kontzeptua / Concepto | Eurotan / Euros |
|---|---|
| Kanpoaldean Led Pantaila hornitu eta instalatzea / Suministro e instalación de Pantalla Exterior de Led. | 411.289,93 |
| Ekipamendu eszenikoko hagak kudeatzeko mahai berria jartzea / Nuevo pupitre para la gestión de varas del equipamiento escénico | 137.900,00 |
| Igogailua berritzeko lanak: kabina egokitua instalatzea / Reforma ascensor instalción de cabina adaptada | 68.300,00 |
| 24 orduko komunikazio-lineak jartzea igogailuen kabinaren eta kontrol-zentroaren artean / Instalación de líneas de comunicación 24 horas entre cabina de ascensores y centro de control. | 26.079,50 |
| Ekipamendu elektronikoa eta komunikazio-ekipamendua instalatzea, egungo Wifi sareari kapazitate handiagoa emateko / Instalación de equipamiento electrónico y de comunicación para dotar de mayor capacidad a la instalación existente de Wifi. | 25.052,01 |
| Instalazioetarako sarbidean Videowall bat hornitu eta instalatzea / Suministro e instalación Videowall en acceso a instalaciones | 17.815,00 |
| Ikus-entzunezko ekipoak berriztatu eta erostea (mikrofonoak, aurikularrak, intercom, bozgorailuak) / Renovación y compra de equipos audiovisuales (micrófonos, auriculares, intercom, altavoces) | 14.735,40 |
| Proiektoreak eta proiekzio-pantailak berriztatzea / Renovación de proyectores y pantallas de proyección | 13.964,48 |
| Aretoko altzariak berritzea / Renovación de mobiliario de sala. | 11.636,80 |
| Webgune berria / Nueva página Web | 10.367,60 |
| Auditoriumeko eta seinale digitaletarako A-1 aretoko kabina eta eszenatokiarean arteko interkonexio-instalazioa hobetzea / Mejora de la instalación de interconexión entre cabinas y escenarios de las salas Auditorio y A-1 para señales digitales. | 8.879,00 |
| Eszenatokietako plataformak hornitzea / Suministro de plataformas para escenarios | 8.212,06 |
| A-3 Aretoko nahasketa eta soinu mahaia / Mesa de mezclas -sonido para Sala A-3 | 7.429,00 |
| Ikusle-kopurua kontrolatzeko ekipamendu informatikoa / Equipamiento informático para el control de aforos. | 3.813,00 |
| Guztira / Total | 765.473,78 |

Sozietateak lantalde bera mantendu du urte osoan; 2015eko abenduaren 31n, 21 langile zeuden lantaldean.

La Sociedad, durante el año ha mantenido su plantilla que a 31 de diciembre de 2015 es de 21 personas.

## 2016ko aurrerapena.

## Avance 2016

2016an kongresu handi eta ospetsuak egingo dira Euskaldunan, EAEko KPIn eragin ekonomiko handia izango dutenak. Honakoek aipamen berezia merezi dute: SEPES 2016, Protesi Estomatologikoen Espainiako Sozietatearen 45. Bilkura; SERAM 2016, Espainiako Erradiologia Sozietatearen 33. Biltzar Nazionala; El Sol 2016, Publizitate Komunikazioaren Jaialdi Iberoamerikarra; Europhyton 2016; SED 2016, Diabetesaren Espainiako Sozietatearen XXVII. Biltzar Nazionala; ICLEI 2016, Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentzia; eta Artroskopiaren Espainiako Elkarteak (AEA) eta Belaunaren Espainiako Elkarteak elkarrekin egingo duten IV. Biltzarra (SEROD 2016).

En 2016, Euskalduna albergará grandes y prestigiosos congresos que generarán un importante impacto económico en el PIB de Euskadi de los que cabe destacar: 45 Reunión de la Sociedad Española de Prótesis Estomatológicas SEPES 2016, 33 Congreso Nacional de la Sociedad Española de Radiología SERAM 2016, El Festival El Sol Iberoamericano de la Comunicación Publicitaria 2016, Europhyton 2016, XXVII Congreso Nacional de la Sociedad Española de Diabetes SED 2016, 8ª Conferencia Europea de Ciudades y Pueblos Sostenibles ICLEI 2016, IV Congreso Conjunto de la Asociación Española de Artroscopia (AEA) y de la Sociedad Española de Rodilla (SEROD 2016).

Gainera, dimentsio sozial, ekonomiko edota zientifiko handiko beste bilera jendetsu batzuk ere egingo dira: Garraioko Enpresaburuen XVI. Biltzar Nazionala; Elektrofisiologia, Arritmia eta Bihotzeko Estimulazioaren Baterako II. Bilera; LUBMAT 2016 Biltzarra: Lubrication, Maintenance and Tributechnology; Katolikoak eta Bizitza Publikoa EAEn izeneko XI. Jardunaldiak; edota Odol Transfusioen eta Terapia Zelularraren Espainiako Elkartearen 27. Biltzarra (SETS 2016).

Además, tendrán lugar otros eventos de reunión de gran dimensión social, económica o científica y nutrida presencia de asistentes: el XVI Congreso Nacional de Empresarios del Transporte; la II Reunión Conjunta de Electrofisiología y Arritmias y de Estimulación Cardiaca; el Congreso LUBMAT 2016: Lubrication, Maintenance and Tributechnology; la XI Jornadas Católicos y Vida Pública en el País Vasco o el 27 Congreso de la Sociedad Española de Transfusión Sanguínea y Terapia Celular SETS 2016.

Urteko helburuetako bi hauek dira: %85eko gutxieneko okupazioa lortzea eta ustiapenerako diru-laguntzarik ez erabiltzea.

Los objetivos para el año se sitúan en una ocupación mínima del 85% y la no utilización de subvenciones para la explotación.